

LAGUNTZA-PRODUKTUAK EROSTEKO DIRU-LAGUNTZAK: GURPIL-AULKIA, AUDIFONOA,...

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Laguntza ekonomikoak zuretzat edo zure zaintzaileentzat

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasuna duten pertsonak eta/edo desgaitasuna dutenak =>%33.

Zenbatekoa

Ordainketa bakarra, aldundiek ezarritako gehienezko zenbatekoa.

Baldintzak

Ezgaitasuna edo mendekotasuna. Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Zerbitzu honek laguntza ekonomikoak ematen ditu, edo desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko balio duten laguntza-produktuak eskaintzen ditu ([3.3.1 fitxa](#)).Laguntza-produktu berreskuraezinak dira, beren ezaugarriak direla-eta transferiezinak direnak eta, beraz, pertsona bakar bati edo batzuei aldi berean mesede egiten dietenak.

Norentzat?

- Mendekotasuna duten pertsonak.
- Desgaitasuna duten pertsonak =>%33.

Zenbatekoa da?

Ordainketa bakarra. Foru Aldundiek laguntza-produktu mota bakoitzerako gehienezko zenbatekoa zehazten dute.

Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

Edozein zerbitzurekin bateragarria da. Baita xede bererako beste laguntza batzuekin ere, baldin eta laguntzen zenbateko osoak produktuaren kostu osoa gainditzen ez badu.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasuna (I., II. edo III. gradua) edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna onartua izatea.

Prestazioa zein Foru Aldundietan eskatu eta lurralde horretan **errolatuta egotea, aurreko 12 hilabeteetan.**

Aurreko 6 urteetan laguntza-produktu bera erosteko **laguntzarik jaso ez izana.**

Ezarritako gehieneko **mugak gainditzen dituen diru-sarrerarik ez izatea.**

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

Informazio gehiago:

- [Laguntza-produktuak erosteko laguntza Araban](#)
- [Laguntza-produktuak erosteko laguntza Bizkaian](#)
- [Laguntza-produktuak erosteko laguntza Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)